

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alejandro Antxustegi Asumendi

*Amoroto,
Bizkaia (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Odiaga auzoko Etxezarra baserrian jaio eta bizitakoa. Ama Etxezarra bertakoa zuen eta aita Enparanekoa. 9 neba-arrebatan bigarrena izan zen. Eskolara gutxi joan zen; 9 urterekin baso-lanetan hasi zen, eskola baino gurago zuen eta. Australiara azukre-kainaberak ebakitzera joan zen, baina 2 hilabeteren ostean basoko lanetan hasi zen bertan. Eibarko Laurona enpresarentzako eskopeta ajustatzaile ere aritu zen 6-8 urtez. 900 sagarlandara sartu zituen eta horixe izan du ogibide nagusi, 39 urtez neguro Benidormera joaten zen bitartean. Ehiza zalea da Alejandro. 90 urtera arte buruz behera jarri izan da teilotu gainean; horretarako bat jaio egin behar dela dio.

Zintak

AMT-011

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2025-05-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

AMT-012

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2025-05-02
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Enparan baserria, aitaren jaiotetxea, non dagoen

- **Erref:** AMT-011/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amorotoko Odiaga auzoko Etxezar baserrian jaio zen. Ama zen bertakoa. Aita ere Amorotokoa zuen, Enparan baserrikoa. Basoan dagoela Enparan baserrria dio, urrun, oinez ordubeteko bidean. Bi bizitzako baserrria da. Urte askoan ez omen da inor bizi, baina oraindik zutik dagoela baserrria uste du.

2. Eskolara joan beharrean, trontzarekin pinuak botatzera

- **Erref:** AMT-011/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eskolan Amoroton ibili zen, baina egun erdiz bakarrik joaten ei zen. Neba-arreba asko zirenez, gosea izaten zuten gerraostean. Bederatzi urterekin hasi zen trontzarekin pinuak botatzen. Eskolan baino gusturago ibiltzen zen mendian. Ez zuen eskola asko ikasi, baina maisuak Australiara joateko agiria sinatu omen zion eta pozik.

3. Lau urte eta erdi Australian pinuak jotzen

- **Erref:** AMT-011/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Baso-lanak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Plantazioetako lanak diasporan
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Lau urte eta erdi egin zituen Australian. Hasieran kanaberak ebakitzen ibili zen, baina gero pinuak jotzeko bi lagun behar zituztela eta hegoaldera joan ziren anaia eta biak. Ingelese zekien Bergarako abade bat izaten zen bitartekari edo mezularia. Hatz punta moztu zuen Australian lanean zebilela. Hala ere, gustura ibili ziren.

4. Lanean ohitutako euskaldunak Australiara

- **Erref:** AMT-011/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia

Laburpena:

159 lagun joan ziren Australiara, gehienak euskaldunak. Bilbotar asko apuntatu ei ziren, ingelesa zekitela eta, baina ez zituzten aukeratu; lanean ohitutako jendea aukeratu zuten. Australiara bidaia. Greziatik 400 emakume sartu ziren beraiekin barkuan. 12 egunean lurrik ikusi gabe barkuan.

5. Gernikako bonbardaketaren inguruko oroitzapenak

- **Erref:** AMT-011/012
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian hegazkin asko pasatzen ziren. Gernikako bonbardaketaren inguruko oroitzapenak.

6. Gerra sasoiko kontuak; milizianoak baserrian

- **Erref:** AMT-011/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian milizianoak izaten zituzten baserrian. Fronteak non egon ziren. Iluntzeetan tiro-hotsa. Berak 6-7 urte zituen; ez zuela beldurrik sentitzen dio.

7. Gerraostean garia entregatu behar eta etxerako falta

- **Erref:** AMT-011/016
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra sasoian ganaduak errekitzen zituzten. Gerraostean lege gogorrak egon zirela dio. Garia entregatu behar izaten zuten herrian eta etxerako falta. Ogi beltza. Errotak ere errekitatu egiten zituzten eta eskuz ehotzeko errotatxoa erosi zuten. Baserrian artoa morokilarekin, babarruna, baba... goserik ez zuten pasa.

8. Etxean egindako ogia eta morokila

- **Erref:** AMT-011/017
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ogia etxean egiten zuten. Aitak labea nola eraiki zuen. Egurra ekarri, labea berotu eta 8-10 ogi egiten zituzten aldi bakoitzean. Sikatu ez zitezen, garitzan sartzen zituzten. Aste osorako ogia izaten zen. Morokila ere egiten zuten arto-irinarekin. Baserrian ez zuten goserik pasa.

9. Inguruko errotak; errotatik bueltan gertatutakoa

- **Erref:** AMT-011/019
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Inguruko errotak. Astoarekin joaten ziren errotara. Behin, mutikotan, astoarekin errotatik zetorrela, irin-zorroa erori zitzaion maldan behera. Bera ez zen jasotzeko gai eta astoari soka lepotik jarrita lortu zuen zorroa bidera jasotzea.

10. Astoarekin lasterketa irabazi zuen Amoroton

- **Erref:** AMT-011/020
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:22:17. **Bukatu:** 00:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxean izan zuten asto batekin lasterketa irabazi zuen Amoroton. Ederki joaten ei zen "laukoan" astar txikia. Behor baten aurka jokatu zuen lasterketa. Gertatutakoaren inguruko azalpenak.

11. Buruz behera jartzeko abilezia

- **Erref:** AMT-011/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lagun baten osabak "pino" a egiten zuela eta, bera ere probatzen hasi zen eta ordutik sarri egin izan du. Erraz egiten zuela dio. Teilatu gainean ere egin izan du. Duela gutxi utzi dio egiteari.

12. Teilatu gainean buruz behera

- **Erref:** AMT-011/025
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:32:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Teilatu gainean ere jarri izan da buruz behera, eskuen gainean. Bi argazki erakusten ditu: batean, Santa Eufemiko ermitaren teilatu gainean (86 urterekin) eta bestea etxeko teilatu gainean (90 urte bete zituen egunean).

13. Mailu-jaurtiketan txapeldun, soldadu zegoela

- **Erref:** AMT-011/028
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Soldadutzan zegoela, soldadu batzuek mailu-jaurtiketan parte hartu zuten, eta berak irabazi zuen. Bigarren egin zuenari sei metroko aldea atera omen zion. Saria: 8 ogerleko eta etxera joateko hilabeteko baimena.

14. Bizitzako egunik onenak eta txarrenak soldadutzan

- **Erref:** AMT-011/029
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Bizitzako egunik onenak eta txarrenak soldadutzan pasa omen zituen Iruñean. Kirola egiten zuen. Tiro txapelketetan ere parte hartu izan zuen. Ez zieten urik edaten uzten eta neguan erreka ur hotzetan bainatu behar. 14 hilabeteen 8 zaintza besterik ez omen zituen egin, kirolean aritzeko zaintzak arintzen zizkioten eta. Teoria eskolek ematen zioten beldurra, gaztelaniaz ez zekien ondo eta. Hango bizimodua.

15. Gerran fusilatutako amorotarra; aita ihesi

- **Erref:** AMT-011/030
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:46:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gogoan du gerra sasoian Amorotoko gizon bat fusilatu zutela, emaztea haurdun zegoela. Alejandroren aita ez zen politikan ibili, baina badaezpada ihes egin zuen Laredo aldera. Ama bisitan joan zitzaiola gogoratzen du.

16. Eskolan, euskaraz eginez gero, zigorra

- **Erref:** AMT-011/033
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:48:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ez daki eskolako maisuak Francoren aldekoak ote ziren. ez zieten politika konturik aipatzen eta. Eskolan ezin izaten zuten euskaraz egin maisuaren aurrean, bestela zigortu egiten zituen.

17. Australiara lanera; iparraldetik hegoaldera

- **Erref:** AMT-011/036
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:49:37. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Baso-lanak diasporan
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Diaspora » Lana diasporan » Plantazioetako lanak diasporan

Laburpena:

Eskola gutxi ikasi zuen, baina maisuak agiria sinatu zion, Australiara lanera joateko. Bi hilabetez kanaberak ebakitzen ibili zen. Gero, hegoaldera. Hiru hegazkin hartu behar izan zituzten Melbournera iristeko. Adelaidara joateko

trenaren zain egon ziren denboran, bilbotar batek pinuak jotzen ari ziren lekura eramane zituen eta amorotar bat aurkitu zuen bertan.

18. Amorotar bat lan gogorretan Melbournen

- **Erref:** AMT-011/038
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Baso-lanak diasporan

Laburpena:

Melbournen lanean ikusi zuen amorotarrak lan gogorra zuela dio. Zuhaitz oso handiak botatzen zituzten. Trenbideetarako trabesak egiten zituzten egur harekin.

19. Aulestiko bi anaiaren lana Australian

- **Erref:** AMT-011/039
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Azpiegituretako lanak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- Diaspora » Lana diasporan » Baso-lanak diasporan

Laburpena:

Aulestiko bi anaiak Australian egiten zuten lan gogorra. Bakoitza kamioi batekin ibiltzen ziren basoan, pinutan. Zerrategi bat errentan hartuta zuten eta trenbideetarako trabesak egiten zituzten gero. Beraiek ez ziren asko joaten herri hartara, bestela irabazitako dirua gastatzeko arriskua zegoela dio.

20. Australian "erromeria"n bizitakoak

- **Erref:** AMT-011/041
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:57:05. **Bukatu:** 00:58:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan

Laburpena:

<p>Australian zegoela, hango "erromeria" batera joan zen behin lagun batekin. Familia osoak joaten ziren eta mutilek dantza egiteko baimena eskatu behar izaten zieten neskei. Neskak soineko luzeekin janzten ziren eta dantza egiteko soinekoa jasotzen zuten. Lagunarekin egindako apustua.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com